

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian xedatu zen Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek, beren eskumenen esparruan, gardentasunerako eta herritarren parte-hartze eta elkarlanerako neurriak hartuko zituztela, foru lege horretan jasotako printzipio eta aurreikuspenekin bat.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 25eko erabakiaren bidez, Parlamentuko zerbitzuen esku utzi zuen Legebiltzarreko webguneko gardentasun moduluan modu iraunkor eta eguneratua argitaratzea horretarako araudi-aldaketarik behar ez duten osagai eta arlo guztiak, ezertan galarazi gabe geroago erakunde honen gardentasun aktiboari buruzko araudi orokorra onestea eta datu pertsonalen babesari buruzko legediarekiko errespetuarekin.

Zerbitzu Juridikoetako buruak proposatu du Nafarroako Parlamentuko gardentasun moduluan argitaratzea Zerbitzu Juridikoek legegintzaldi honen hasieratik eginiko gai parlamentarioei buruzko txosten juridikoak, Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoen txosten gisa identifikatuak, bai eta Konstituzio Auzitegiak Nafarroako Parlamentuak onetsitako foru legeei buruz edota Nafarroako Parlamentua pertsonatu den konstituziokontrakotasun prozesuetan emandako erabakiak ere.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Legebiltzarreko zerbitzuen esku uztea Zerbitzu Juridikoek legegintzaldi honen hasieratik eginiko gai parlamentarioei buruzko txosten juridikoen, Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoen txosten gisa identifikatuen, argitalpen egonkor eta eguneratua.

2. Legebiltzarreko zerbitzuen esku uztea Konstituzio Auzitegiak Nafarroako Parlamentuak onetsitako foru legeei buruz edota Nafarroako Parlamentua pertsonatu den konstituziokontrakotasun prozesuetan emandako erabakien argitalpen egonkor eta eguneratua.

3. Erabaki hau Parlamentuko zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

LEHENDAKARIA

Ainhoa Aznárez Igarza